

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

242/2025 Foru Agindua, uztailaren 28koa, zeinaren bidez Aixeardar SAr baimena ematen baitzaio Labrazako parke eolikoak instalatu ahal izateko "Matarredo" izeneko onura publikoko 172 mendia eta "Pinar de Dueñas" izeneko onura publikoko 173 mendia okupatzeko administrazio emakidarako

Erregistro Elektroniko Komunean 2023ko urriaren 23an sartutako idazki baten bidez, Aixeardar SAr Mendi Zerbitzuari eskatu zion "Matarredo" izeneko onura publikoko 172 mendian eta "Pinar de Dueñas" izeneko onura publikoko 173 mendian Labraza parke eolikoak okupatzeko administrazio emakida emateko.

Eskaeran honako hau azaltzen da:

- Labraza parke eolikoak aurretiko administrazio baimena duela.
- Jendaurrean jarri direla Labraza parke eolikoaren aurretiko administrazio baimena aldatzeko eskaera eta parke eolikoaren proiektu eguneratua eraikitzeko administrazio baimena.
- Aipatutako jendaurrean jartzeko fasean, Mendi Zerbitzuak, besteak beste, aurkeztutako dokumentazioari buruzko txostena egin duela.
- Aixeardar SAr, besteak beste, Mendi Zerbitzuaren txosten horren erantzuna bidali duela.

Gainera, honako hau azaltzen da:

- Labraza parke eolikoak onura publikoa duela aitortuta, Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legearen 54. artikulua arabera.
- Sektore Elektrikoari buruzko Legeak, gainera, 2.2. artikuluan, energia elektrikoaren horniduraren interes ekonomiko orokorra aitortzen duela.
- Euskal Autonomia Erkidegoan Energia eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana onartzen duen 104/2002 Dekretuaren 2.2. artikuluan ere aitortu zela onura publiko hori.

Azkenik, adierazten da Labraza parke eolikoaren okupazioa bateragarria dela onura publikoko 172 eta 173 mendiaren erabilera eta aprobetxamenduekin, ez dela aldaketa nabarmenik sortzen mendiaren oreka ekologikoan, eta mendiari egingo litzaiokeen kalte txikia lehengoratu daitekeela ingurumena egokitzeko eta hobetzeko jarduketaren bidez; eta egin nahi den okupazioa ez dela iraunkorra, ez eta 75 urtetik gorakoa ere.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu dira:

- Ingurumen inpaktuaren adierazpena.
- Aurretiko administrazio baimena.
- "Ingurumen integrazioko proiektua" izeneko eraikuntza proiektuaren 1. eranskina.
- GIS formatuko fitxategiak.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Sailaren eta Natura Ondarearen Zerbitzuaren txostena.
- Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuaren txostena.
- Aixeardar SAr bi txostenei emandako erantzuna.

2024ko martxoaren 6an, Mendi Zerbitzuak dokumentazio osagarri hau eskatu zion Aixear SAr:

- Okupazio azalaren behin betiko zerrenda, aldi baterako okupazioak eta behin betikoak bereizita, Labraza parke eolikoaren eraginpeko onura publikoko mendi bakoitzerako.
- Labraza parke eolikoaren onura publikoaren adierazpena, edo, bestela, haren izapideak zer fasetan dauden adieraztea.
- Higadura prozesuak saihesteko hartutako neurrien laburpena.
- Eraginpeko onura publikoko mendien jabe diren erakunde publikoen baimena, halakorik izanez gero, eta erakunde jabeekiko akordioa, halakorik badago, kanona ezartzeari eta haren zenbatekoari buruzkoa.

2024ko apirilaren 22an, Aixear SAr eskatutako dokumentazio errekerimenduaren erantzuna bidali zion Mendi Zerbitzuari. Bertan, honako hau jasotzen zen:

- Okupazio azalaren behin betiko zerrenda, aldi baterako okupazioak eta behin betikoak bereizita, Labraza parke eolikoaren eraginpeko onura publikoko mendi bakoitzerako.
- Labraza parke eolikoaren onura publikoaren adierazpenaren izapideak zein fasetan dauden.
- Higadura prozesuak saihesteko hartutako neurrien laburpena.
- Eraginpeko onura publikoko mendien jabe diren erakunde publikoei helarazitako okupazio kanonaren proposamen ekonomikoa.

2025eko otsailaren 14an, Aixear SAr okupaziorako administrazio emakida emateko eskaeraren dokumentazio gehigarri hau bidali zion Mendi Zerbitzuari:

- Gorrebustoko kontzejuaren akta, Aixear SAr parke eolikoko okupazio tasak onesten dituen.

2025eko martxoaren 26an, entzunaldiko izapidea ireki zen Aixear SAr onura publikoko mendiak okupatzeko administrazio emakidarako egindako eskaerari buruz. Izapide horretan, entzunaldia eman zitzaion Aixear SAr eta Gorrebusto eta Labrazako administrazio batzarrei. Labrazako Administrazio Batzarrek aurkeztutako lehenengo alegazioari erantzunez, beste alegazio batzuk aurkezteko epea luzatu zitzaion.

Urtarrilaren 24ko 21/2024 Foru Aginduaren bidez, Oiongo udalerriko lurzoru urbanizaezinean Aixear SAr sustatutako "Labraza" parke eolikoaren plan bereziaren proiektuaren interes publikoa adierazi zen, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Azkenik, Energia Politikaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiaren 2025eko uztailaren 8ko Ebazpenaren bidez, Aixear SAr zehazki onura publikoaren adierazpena eman zitzaion Labraza parke Eolikorako (40 M-ko potentzia instalatua) eta haren ebakuazio azpiegiturarako, zeinak (Oionen (Araba) eta Aguilar de Codésen (Nafarroa) baitaude. Ebazpen hori 2025eko uztailaren 24ko BOEn (177. zk.) argitaratu da, eta txosten hau egin den egunean oraindik ez da irmoa.

Aixear SAr eskatutako erabilera eta aprobetxamendu motarako, honako hau dio Mendiari buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 26.2 artikulua: "Eskatutako baimena edo emakida Estatuko Gobernuak interes orokorreko gunetzat jo dituen, Arabako Lurralde Historikoko interesgarritzat jo diren edo herri erabilerakotzat jo diren jarduketetatik datorrenean, mendien arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren Sailak entzunaldiaren izapidea emango dio/die mendiaren titularra/titularrak den/diren erakundeari/erakundeei, eta bidezko ebazpena hartuko du. Aldeko ebazpena denean, aurreko 1. atalean aurreikusi diren betekizunak, tasak edo kanonak, eta kalte-ordainak ezarriko ditu.

Gainerako kasuetan, beharrezkoa izango da mendiaren titularra/titularrak den/diren erakundeak/erakundeei ados dagoela/daudela adieraztea."

Bestalde, Sektore Elektriokoari buruzko Legearen 54. artikulutik ondorioztatzen da instalazio elektriko baten onura publikoaren adierazpena ex lege egiten dela, instalazio elektrikoa baimendu ondoren, hau da, behin lege horretan jasotako baimena lortuta, adierazpena legeak hala aginduta egiten da.

Horregatik, Labraza parke Eolikorako aurretiko administrazio baimena dagoenez, zeina Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Energia Politikaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko apirilaren 17ko Ebazpenaren bidez eman baitzitzaion Aixear SAr (2023-05-05eko ALHAO, 52. zk.), eta baimen hori erabakigarria denez onura publikoaren adierazpenerako, nahiz eta oraindik ez dagoen hori aitortzeko esanbidezko ebazpenik, haren zain, aztergai dugun prozeduraren instrukzio esparruan eta ebazpena eman aurretik, Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 26.2 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan ezarritakoa betez, 2025eko martxoaren 26an, Labrazako Administrazio Batzarrari jakinarazi zitzaion entzunaldiko izapidea ireki zela, Labraza parke eolikoa instalatu ahal izateko Aixear SAr "Matarredo" izeneko onura publikoko 172 mendia eta "Pinar de Dueñas" izeneko onura publikoko 173 mendia okupatzeko egindako administrazio emakidaren eskaerari zegokiona.

2025eko apirilaren 11n, Labrazako Administrazio Batzarrak idazki bat aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiko Erregistro Elektronikoko Komunean. Bertan, espedientearen kopia osoa eskatu ondoren, honako alegazio hauek egin zituen:

a) Aurretiko administrazio baimena ez da irmoa, errekurritu egin delako, lehenik eta behin, administrazio bidean, etete eskaerarekin, eta, ondoren, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

b) Labrazako parke eolikoaren plan bereziaren proiektua interes publikokoa dela adierazten duen 21/2024 Foru Aginduaren aurka jarritako errekurtsoren esanbidezko ebazpenik ez dago; eta, era berean, etetea eskatzen du.

c) Hirigintzako plan berezia onetsi gabe dago.

d) parke eolikoaren administrazio baimenaren onura publikoaren adierazpena falta da.

e) Prozedura ez da egokia obra motarako, ez baita aplikagarria Mendiei buruzko Foru Arauaren 26.2 artikuluan ezarritakoa, 26.3 artikuluan araututakoa baizik.

f) Labrazako Administrazio Batzarraren eskumena, onura publikoaren adierazpenik ez dagoelako.

g) Ingurumena lehengoratzeko proiektu egokirik ez dago.

2025eko ekainaren 19an Labrazako Administrazio Batzarraren esku jarri zen eskatutako espedientearen kopia, eta entzunaldi epe berria eman zitzaion, lehenengo alegazioari dagokionez, hau da, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Energia Politikaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko apirilaren 17ko Ebazpenaren bidez emandako aurretiko administrazio baimena irmoa ez izateari dagokionez. Bada, hori argitu ondoren, adierazi behar da ezen, administrazio zuzenbidearen printzipio orokorren arabera, administrazio egintzak betearaztekoak direla jakinarazten direnetik, salbu eta lege xedapen batek kontrakoa xedatzen badu edo betearazpena etetea erabakitzen bada errekurtsu bat jartzearen ondorioz.

Hala, instalazio elektriko baterako aurretiko administrazio baimen baten kasu zehatzean, zeina administrazio egintza bat baita, haren aurka errekurtsua jar daiteke administrazio bidean eta, hala badagokio, jurisdikzio bidean. Eta irmoa ez den bitartean, ondorioak sortzen ditu, betearazpena etetea erabakitzen ez bada.

Lehen adierazi den bezala, Mendiei buruzko Foru Arauaren 26.2 artikulua ezartzen du interes orokorreko instalazioetarako mendi publikoak okupatzeko baimena eman ahal izateko, aurrez onura publikoaren adierazpena egin behar dela, baina ez du berariaz eskatzen adierazpen

hori irmoa izatea, baizik eta soilik okupazio baimena izapidetzea gaitzen duen adierazpen formal bat egotea. Beraz, baldin onura publikoaren adierazpena badago, irmoa ez bada ere, okupatzeko baimenaren espedientea has daiteke eta, hala badagokio, aldeko ebazpena eman daiteke. Hala ere, baimenaren eraginkortasuna onura publikoaren adierazpenaren irmotasunaren edo haren betearazpena ez etetearen baldintzapean geratuko da.

Ildo horretan, jurisprudentziak eta administrazio doktrinak onartu dute administrazio egin-tzek ondorioak dituztela jakinarazten direnetik, eteten ez badira, eta okupatzeko baimena onura publikoaren adierazpenaren irmotasunaren edo haren betearazpena ez etetearen baldintzapean eman daitekeela, horrela segurtasun juridikoa eta eragindako interes publiko eta pribatuaren babesa bermatuz.

Gauza bera adierazi zuen Kanarietako Justizia Auzitegi Nagusiak 2024ko apirilaren 22ko epaian. Epai horretan, onura publikoaren adierazpen batek babestutako administrazio egintza bat betearazteko aukerari helduz (zehazki, onura publikokotzat adierazitako instalazio foto-voltaikoaren proiektu bat egikaritzeko sarrera baimen bat), egintza hori egikaritzea onartzen du, nahiz eta onura publikoaren adierazpena aurkaratuta egon administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, baldin eta haren eraginkortasuna eteten duen kautelazko neurririk ez badago.

Horiek horrela, Labrazako parke eolikoa onura publikokoa dela adierazten duen esanbi-dezko ebazpena dagoenez, Energia Politikaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiak 2025eko uztailaren 8an emana eta 2025eko uztailaren 24ko BOEn (177. zk.) argitaratua, eta ez dagoenez jasota haren betearazpena eten denik, ezin gara bat etorri Labrazako Administrazio Batzarrak aurkeztutako lehenengo alegazioarekin.

Bigarrenik, udalerririk horretako Administrazio Batzarrak aipatu dituen Labrazako parke eoli-koaren plan bereziaren proiektuaren interes publikoa adierazten duen 21/2024 Foru Agindua-ren aurka jarritako errekursoaren esanbidezko ebazpenik ezari eta hirigintza plan bereziaren onespenerik ezari dagokienez, gogorarazi behar da independenteak direla energiaren arloko administrazio baimenak eta hirigintza tresnak. Kasu horretan, Auzitegi Gorenak besteak beste 2015eko irailaren 21eko epaian aitortu duen bezala, energia arloko baimenak ematea ezin da lotu hirigintza plangintzako tresna aldeztu aurretik onestearekin.

Hirugarrenik, Labrazako parke eolikoaren onura publikoaren adierazpena falta dela eta, Administrazio Batzarrak aipatua, adierazpen hori badago, eta Energia Politikaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiaren uztailaren 8ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, okupatzeko baimena eman aurretik, eta, Sektore Elektrikoari buruzko Legearen 56.2 artikuluan xedatutakoaren ara-bera, horrek berekin dakar okupatzeko eskubidea; eta, horretarako, beharrezkoa da orain baso administrazioa izapidetzen ari den emakida arautua.

Laugarrenik, Labrazako Administrazio Batzarrak alegatu duen Mendiei buruzko Foru Araua-ren 26. artikuluan 2. apartatua modu desegokian aplikatzeari dagokionez, apartatu horretan agindutakoa ikusita, berretsi egin behar da hura dela aplikatzekoa, eta ez 3. apartatua, toki erakunde horrek nahi duena. Eta hori, alde batetik, aipatutako 2. apartatuan eskatutako baldintza betetzen delako, hau da, Estatuak onura publikokotzat jo du parke eolikoaren instalazioa. Eta, bestetik, ez dagoelako tartean diren onura publikoen bateraezintasun adierazpenik.

Azkenik, Labrazako Administrazio Batzarrak ingurumena lehengoratzeko proiektu egokirik ez egoteari buruz duen iritzia dagokionez, adierazi behar da, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioi Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko urtarrilaren 3ko Ebazpenaren bidez, "40 MW-eko Labraza parke eolikoa eta haren ebakuntza azpiegituraren zati bat" proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena egin zela. Bertan zehazten denez, "ingurumen inpaktuaren azterketan eta adierazpen honetan ezarritako neurri bakoitza proiektuan edo proiektuaren eranskin batean sustatzaileak zehaztuta eta aurrekontuan jasota egon beharko da, onetsi aurretik".

Era berean, 2023ko uztailaren 10ean, Mendi Zerbitzuak txosten bat egin zuen Labraza parke eolikoaren proiektuaren aurretiko administrazio baimena aldatzeko eskaerari eta proiektu hori eraikitzeko administrazio baimenaren eskaerari buruz. Txosten horretan, zenbait baldintza tekniko ezarri ziren, proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpenaren inpaktu esanguratsuenerako prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriei buruzko baldintzei aplikatu beharrekoak. 2023ko abuztuaren 8an, Gobernuaren Ordezkariordeztzak Aixeiendar SAREN erantzuna bidali zuen. Bertan, Mendi Zerbitzuak ezarritako baldintzak onartu zituen.

Bestalde, Mendiei buruzko Foru Arauak honako hau ezartzen du 26.1 artikuluan: “Mendien arloan eskumena daukan Foru Aldundiaren Sailak baimen edo emakidaren betekizun edo baldintza lotesleak ezarriko ditu, baimen tasa edo erakunde titularri/titularrei ordaindu beharreko okupazio tasa, eta hala denean, erabilerak edo okupazioak mendiari eragingo dizkion kalte-galeren ordaina barne, nahiz eta entitateak berak zenbait tasa eta kanon finkatu ditzake zenbateko handiagotan finkatuta baldin badaude”.

Horri dagokionez, argitu behar da, gaur egun, Labrazako parke eolikoaren eraginpeko “Pinar de Dueñas” izeneko onura publikoko 173 mendiaren zatian, indarrean dagoela 259 zenbakiko Basoberritze Partzuergoa, Labrazako Administrazio Batzarraren (erakunde jabea) eta Arabako Foru Aldundiaren artekoa. Baso partzuergo hori arautzen duen kontratuaren klausulek ezartzen dute Arabako Foru Aldundiaren aldeko lurgain eskubide erreal bat sortuko dela Labrazako Administrazio Batzarrak basoberritzeko emandako lurzatiaren gainean, eta, Arabako Foru Aldundiak konpromisoa dauka haren xede diren lurzatiak basoberritzeko, mantentzeko eta zaintzeko.

Lehen transkribatutako 26.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 259 zenbakiko basoberritze partzuergoan (onura publikoko 173 mendia) eragindako azaleraren lehengoratzeara edo konpentsatzeara erabilerak edo okupazioak mendiari eragingo dizkion kalte eta galeren kalte ordain gisa egingo da. Lehengoratzeara edo konpentsazio horrek, gainera, eraikuntza proiektuaren diseinu fasean higadura prozesuak saihesteko hartutako neurriak osatuko ditu. Hori dela eta, kalte ordain hori kalkulatzeko, Mendi Zerbitzuak uste du konpentsatu egin behar direla Arabako Foru Aldundiak 259 zenbakiko Basoberritze Partzuergoaren xede den baso lehengoratzearako egindako gastuak, Labrazako parke eolikoaren eraginpeko azalerei dagokienez. Kalkulatutako gastua, kontsumoko prezioen indizearekin eguneratua, 20.439,04 euro da. Zenbateko horren gainean, sustatzaileak proiektu espezifiko bat egin beharko du basoberritze partzuergoko azaleretan hutsarteak betetzeko eta/edo hostozabalekin aberasteko, hala behar denean.

Aurrekoa ikusita, Labraza parke eolikoak 259 zenbakiko basoberritze partzuergoan (onura publikoko 173 mendia) eragindako azalera lehengoratzeara edo konpentsatzeara (horretarako, Mendi Zerbitzuak sustatzaileari 20.439,04 euroko proiektu espezifiko bat idatzeko eskatu zion) kalte eta galeren kalte ordain gisa planteatzen da, Mendiei buruzko Foru Arauaren 26.1 artikuluan oinarrituta, eta, nolanahi ere, ingurumen inpaktuaren adierazpenean ezarritako konpentsazio neurrien jarduera gehigarri gisa.

Eta, horregatik, ezetsi egin behar da Labrazako Administrazio Batzarrak aipatutako ingurumena lehengoratzeko proiektu egokirik eza.

Arabako Foru Aldundiak mendien arloan dituen eskumenetan oinarrituta, eta Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 26. artikulua (“Erabilera eta aprobetxamenduen baterako xedapenak”) betez, Mendi Zerbitzuak dagokion txosten teknikoa egin du, aztertzeko ea “Labraza” parke eoliko bateragarria den “Matarredo” izeneko onura publikoko 172 mendia eta “Pinar de Dueñas” izeneko onura publikoko 173 mendia kalifikatzen dituen onura publikoarekin eta, hala badagokio, onura publikoko mendia okupatzeko azalera, kanona eta beste baldintza espezifiko batzuk zehazteko.

Mendi Zerbitzuaren aipatutako txosten teknikoa aztertu da, eta harekin batera doa “Labrazako parke eolikorako mendien kanona likidatzeko txostena” memoria tekniko ekonomikoa.

Egiaztatutzat jotzen da proiektua bateragarria dela mendien onura publikoarekin.

Eta honako hauetan ezarritakoari jarraitu zaio: 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa; 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, Mendiei buruzkoa; eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, APAPEL).

Beraz, nahitaezko txostenak aztertuta eta bat etorri Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027 legegintzaldirako sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoarekin eta harekin lotutako Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuarekin, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Aixear SAr 21,94 hektareako okupazioa ematea Gorrebustoko herriarena den "Matarredo" izeneko onura publikoko 172 mendian, eta 52,06 hektareakoa Labrazako herriarena den "Pinar de Dueñas" izeneko onura publikoko 173 mendian, "Labraza" parke eolikoa instalatzeko. Baimen hori emateko baldintza izango da onura publikoaren adierazpen irmoa izatea eta/edo adierazpen horren betearazpena ez etetea.

Bigarrena: Labrazako parke eolikoaren proiektua bateragarria Gorrebustoko herriarena den "Matarredo" izeneko onura publikoko 172 mendien eta Labrazako herriarena den "Pinar de Dueñas" izeneko onura publikoko 173 mendien onura publikoko eginkizunekin, Mendi Zerbitzuaren txosten teknikoaren 3. apartatuan ("Labraza parke eolikoaren proiektua mendi katalogatuen onura publikoarekin bateragarria den aztertzea") zehaztutako arrazoiengatik.

Hirugarrena: okupazio emakida baldintza hauen arabera ematen da:

1. Proiektuaren prebentzio eta zuzentze neurriak eta ingurumena zaintzeko programa bete beharko dira, bai eta ingurumen inpaktuaren adierazpeneko ingurumen baldintzak ere, eta, bereziki, proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpeneko "Inpaktu esanguratsuenetarako prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriei buruzko baldintzak", Mendi Zerbitzuak 2023ko uztailaren 10ean egindako txostenean jasotakoak. Enpresa sustatzaileak jada onartu ditu, eta hurrengo 1.1. 1.3. epigrafeetan zehaztu dira:

1.1 Ingurumen inpaktuaren adierazpeneko 1.2.1. "Lurzorua eta ura" apartatuari dagokionez:

a. Mendi Zerbitzuko langileek lurrak mugitzeko lanak gainbegiratu ahal izango dituzte, higaradura prozesurik eragin ez dadin.

b. Babes neurriek, landaredia lehengoratzekoek eta paisaia integratzekoek Mendi Zerbitzuaren oniritzia izan beharko dute, onura publikoko mendietan dauden lursailak dagokienez. Horretarako, Mendi Zerbitzuko langileekin adostu beharko dira babesteko eta landaredia lehengoratzeko neurri horien baldintzak, bereziki 259 zenbakiko Basoberritze Partzuergoa indarrean dagoen "Pinar de Dueñas" izeneko onura publikoko 173 mendien eraginpeko eremuan.

1.2 Ingurumen inpaktuaren adierazpeneko 1.2.3. "Flora, landaredia eta Europar Batasunaren intereseko habitatak" apartatuari dagokionez:

c. Mendi Zerbitzuko langileek obra eremu guztietako zuinkatze lanak gainbegiratu ahal izango dituzte, haien mugak behar bezala zehaztuta gera daitezen eta landaredi naturalean beharrezkoa ez den eraginik sor ez dadin haietatik kanpo.

d. 1, 2, 4 eta 6 zenbakietako aerosorgailuek eta 3 zenbakiko aerosorgailuaren hegalek "Matarredo" izeneko onura publikoko 172 mendiari eta "Pinar de Dueñas" izeneko onura publikoko 173 mendiari eragiten diete. Aerosorgailu horiei lotutako azpiegituren zuinketak minimizatu egin beharko du bai landaredi naturalaren gaineko eragina, bai erakunde publiko jabeen eta Arabako Foru Aldundiaren arteko Basoberritze Partzuergoen esparruko basoa lehengoratzeko jarduketetan sartutakoaren gainekoa.

e. Labraza parke eolikoa eta haren ebakuazio azpiegiturak instalatzearen ondorioz zuhaitzak moztu behar badira, Mendi Zerbitzuak mozketak baimena emateko berariazko izapidea egin

beharko da, zerbitzuko langileek zuhaitzak markatu ondoren. Ondorioz, lanak lekuan bertan zuinkatzeko, Mendi Zerbitzuko langileak egon beharko dira, ados jarrita obren eraginpeko zuhaitzak markatzeko.

f. Ahal dela, ez da tamaina handiko arte edo erkametzik moztuko, ez eta Basoberritze Partzuergoan sartuta dauden eta lehengoratzeko egoera hobean dauden eremuetoak ere. Mozketa saihestu ezin bada, Mendi Zerbitzuaren baimena eduki beharko da, aurreko puntuan adierazitakoaren arabera.

g. Zehazki, 4 zenbakiko aerosorgailuari dagokionez, zuinketa oso xehatua egin beharko da obran, eta arreta handiz egikaritu beharko da, nabarmen murriztu daitezen "Matarredo" izeneko onura publikoko 172 mendiko erkamezti eta larre xerofiloen okupazioak.

h. Mendian geratzen diren zurezko materiala, zurgailu eta adarrak kentzen ez direnean (ezinezko delako garbitzea edo ez delako errentagarria), txikitu egin beharko dira edo pilatuta utzi okupazio zonan, gehienez ere 2 metro luze diren enbor multzoetan.

i. Halaber, bidezkoa bada, sastrakak, belarra eta zuhaixkak kentzeko baldintzak ezarriko dira.

j. Oin isolatuak okupazio zerrendatik kanpo moztu badira, parke eolikoan eta haren ebakua-zio azpiegituretan eragin litzakeen kalteak direla eta, mozteko dagokion baimena izapidetu beharko da, eta sortutako kalte eta galeren kalte ordaina ordaindu beharko zaio zuhaitzen jabeari. Egurra parke eolikoaren sustatzailearen jabetzan geratuko da.

1.3 Aurreikusitakoaren arabera obren eragina jasango duten azalera guztietako ingurumena lehengoratzeko eta paisaia integratzeko proiektuak Mendi Zerbitzuaren oniritzia izan beharko du, onura publikoko mendietan dauden lursailei dagokienez. Horretarako, Mendi Zerbitzuko langileekin adostu beharko dira lehengoratzeko proiektuaren baldintzak, bereziki "Pinar de Dueñas" izeneko onura publikoko 173 mendian sartuta dagoen 259 zenbakiko Basoberritze Partzuergoari eragiten dioten gaietan.

2. Ingurumena Lehengoratzeko Proiektuak 20.439,04 euroko partida espezifikoak izan beharko du, dagoeneko ezarrita dauden konpentsazio neurriez gain. Partida horren bidez, konpentsatu egingo dira Mendi Zerbitzuak 1997az geroztik 259 zenbakiko Basoberritze Partzuergoko Labraza parke eolikoaren eraginpeko azaleretan egindako baso lehengoratzeko lanak (azalera horren gainean du Arabako Foru Aldundiak lurgain eskubide erreala). Partida hori hutsarteak betetzeko eta/edo hostozabalekin aberasteko erabiliko da, hala behar duten Basoberritze Partzuergoko azaleretan, eta Labraza parke eolikoaren instalazioetatik beherako lurzorua babesten lagunduko du. Horretarako, sustatzaileak proiektu espezifiko bat egin beharko du (Ingurumena Lehengoratzeko Proiektuaren parte izan daiteke), eta proiektu horrek Mendi Zerbitzuaren oniritzia izan beharko du.

3. Edozein unetan, beharrezkotzat jotzen bada, Mendi Zerbitzuko langileek edozein lan geldiarazi ahal izango dute, baldintza hauek ez betetzeagatik mendiari kalterik ez eragiteko edo baldintzen edozein puntu argitzeko.

4. Azpiegituran edozein aldaketa egiteko edo hartan mantentze lanak egite aldera onura publikoko mendian edozein eragin izateko, Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuaren baimena beharko da.

5. Administrazio emakidaren onuraduna izango da instalazio, mantentze edo desegite obrei lotutako edozein lanen ondorioz onura publikoko mendietan sortutako kalte eta galera guztien erantzulea. Behar diren neurriak hartuko dira obra egiten den bitartean mendiko azpiegiturei kalterik ez eragiteko, hala nola baso-larregintzako itxiturak edo landaketetakoak, seinaleak, bideak eta abar. Hala eta guztiz ere, azpiegituraren bat kaltetzen bada, berehala edo obra bukatutakoan ordeztu edo konpondu beharko da, premiaren arabera, Mendi Zerbitzuko teknikariek adierazita eta gainbegiratuta.

6. Lanak amaitu ondoren, sustatzaileak doitasunezko jasotze topografiko bat egin beharko du instalazioek okupatutako azalaren mugari buruz, eta informazio hori Mendi Zerbitzura bidali beharko du espedientean sartzeko, "gpx" edo "shp" formatuan, honako helbide elektroniko honen bidez: montes@araba.eus.

7. Lanak egiteko epea bost urtekoa da, okupazio emakida jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

8. Okupazio emakidaren edozein erabilera lagapen edo titulartasun aldaketa Mendi Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, dagozkion ondorioak izan ditzan.

9. Jarduera bertan behera uztean, instalazioak desegingo dira, parke eolikoaren proiektuaren dokumentazioan eta, bereziki, ingurumen integrazioko proiektuan jasotako estipulazioen arabera. Onura publikoko mendian eragindako lursailen lehengoratzea Mendi Zerbitzuak eskatzen dituen naturalizazio baldintzetan egingo da.

10. Okupazio epea 25 urtekoa izango da, ebazpena ematen den egunetik hasita, eta gehienez ere 75 urtera arte luzatu ahal izango da, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 93. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera.

11. Okupazio kanona: "Labrazako parke eolikorako mendien kanona likidatzeko txostena" memoria tekniko-ekonomikoan xedatutakoaren arabera, 2025. urteari dagokion okupazio kanona, aldi baterako okupazioak kontuan hartuta, honako hau da eraginpeko erakunde publiko bakoitzarentzat:

— Gorrebustoko Administrazio Batzarra: 9.048,80 euro.

— Labrazako Administrazio Batzarra: 27.398,56 euro.

Aldi baterako okupazioak amaitu ondoren, eta hurrengo puntuan adierazitakoa alde batera utzi gabe, honako okupazio kanon hauek ezartzen dira:

— Gorrebustoko Administrazio Batzarra: 8.906,34 euro.

— Labrazako Administrazio Batzarra: 26.462,34 euro.

Mendi Zerbitzuak ezarritako kanonak zehazten dira, ezertan galarazi gabe erakundearen beraren tasak edo kanonak aplikatzea zenbateko handiagoan ezarrita badaude, Mendiei buruzko Foru Arauaren 26.1 artikulua adierazten duen bezala.

12. Kanona ordaintzea: kanona urteko lehen hiruhilekoan ordainduko da, lehenengo urtekoa izan ezik, okupazio emakidaren ebazpena eman eta bi hilabeteko epean ordainduko baita.

13. Kanona berrikustea: kanona urtero eguneratuko da, aurreko ekitaldiko kontsumorako prezioen indize orokorraren arabera. Halaber, Mendien Erregelamendua onesten duen otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren 174.2 artikulua aplikatuz, katalogatutako mendi publikoetan aldi baterako okupazioengatiko urteko kanonari dagokionez, kanona 5 urtean behin berrikusi ahal izango da alderdi interesdunetako edozeinek eskatuta, okupazioa baimentzen duen foru agindua aldatuz.

Gorrebustoko Administrazio Batzarrek, onura publikoko 172 mendiaren titularra den aldetik, eta Labrazakoak, onura publikoko 173 mendiaren titularra izanik, mendiaren erabilera pribatiboagatik lortutako etekin garbiaren ehuneko 15 bideratuko dute hobekuntza funtsera (Mendiei buruzko Foru Arauaren 26.6 artikulua). Toki erakunde bakoitzak horretarako aurreikusitako kontu berezi batean gordailutuko du zenbateko hori, ondoren mendia hobetzeko inbertsioak egiteko; inbertsio horien aldeko txostena egin beharko du Foru Aldundiko baso organoak (Mendiei buruzko Foru Arauaren 36.3 artikulua).

14. Luzapen eskaera emandako okupazio epea amaitu baino hiru hilabete lehenago eskatu beharko da gutxienez.

Laugarrena: Mendi Zerbitzuak proposatutako mendi publiko katalogatuaren okupazio emakidak ez du salbuesten emakidaduna indarreko araudiak eskatzen dituen beste baimen eta lizentzia guztiak izapidetu beharretik.

Bosgarrena: Nekazaritza Sailari dagokio okupazio emakidaren prozedura ebaztea.

Seigarrena. foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtoa, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorriz: Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 28a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria
DAVID FERNANDEZ SARABIA